

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

588

*EBAZPENA, 2025eko urtarilaren 28koa, HABEko zuzendariarena, helduen euskalduntzearen alorreko metodologiagintzan ikertzaileak gaitzeko beka bat esleitzeko dena.*

2024ko abenduaren 19an eman zen argitara EHAAn HABEko zuzendariaren 2024ko abenduaren 12ko Ebazpena, helduen euskalduntzearen alorreko metodologiagintzan ikertzaileak gaitzeko beka baterako deialdia egiten duena.

Deialdi horren baitan izendatutako Hautapen Batzordeak, 2025eko urtarilaren 24an egindako bileran, deialdian izandako eskabidea zehatz-mehatz aztertu ondoren, beka hori esleitzeko proposamena egin zion Zuzendaritza honi, ebazpenaren VIII. 4 oinarria betez.

Hautapen Batzordearen proposamena aztertuta eta deialdiaren IX. oinarrian aurreikusitakoa kontuan hartuz, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Hautagai honi ematea helduen euskalduntzearen alorreko metodologiagintzan ikertzaileak gaitzeko beka:

– Ciudad Nieva, Izaro.

Bigarrena.— Interesdunari jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsua jar daitekeela Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epearen barruan.

Donostia, 2025eko urtarilaren 28a.

HABEko zuzendaria,  
JOKIN AZKUE ARRASTOA.